

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

404/2014 Foru Agindua, irailaren 17koa, behin betiko onartzen duena Samaniegoko lurzoru urbanizaezinean, 5 poligonoko 548 lurzatian, upeltegi bat jartzeko plan bereziaren espedientea

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Samaniegoko Udalak, 2013ko azaroaren 22ko ebazpen bidez, erabaki zuen hasierako onarpena ematea Samaniegoko lurzoru urbanizaezinean, 5 poligonoko 548 lurzatian, upeltegi bat jartzeko plan bereziaren espedienteari, eta hori jendaurrean jartzea. Azken hori, ALHAOn (148. zk., 2013ko abenduaren 27koa), Diario de Noticias de Álava egunkarian (2013ko abenduaren 19koa) eta udalaren iragarki taulan iragarkiak argitaratuz egin zen.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean egon zen bitartean ez zen inolako alegaziorik aurkeztu. Horren ondorioz, udalak, 2014ko ekainaren 13an egindako bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari eta erabaki zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordera bidaltzea, txostena idatz zezan, bai eta Arabako Foru Aldundira bidaltzea ere, behin betiko onar zezan.

Hirugarrena. Espedientea nahitaezko ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren pean jarri da, eta ingurumen memoria 2014ko maiatzaren 26an eman zen.

Laugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Arabako Hirigintza Planeamenduko Atalak uztailaren 2an egindako 4/2014 bilkuran, Samaniegoko lurzoru urbanizaezinean upeltegi bat jartzeko plan bereziaren espedientearen aldeko txostena eman zuen.

Bosgarrena. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2014ko uztailaren 30ean sartu zen idazki baten bitartez, Samaniegoko Udalak Samaniegoko lurzoru urbanizaezinean, 5 poligonoko 548 lurzatian, upeltegi bat jartzeko plan bereziaren espedientea bidali zuen, hura behin betiko onartzeko.

II. OINARRIAK

Lehenengoa. "Benjamín de Rothschild & Vega Sicilia SA" upeltegia jartzeko plan bereziak Samaniegoko ipar-ekialdean dagoen 45.473 m²-ko lurzati luzanga baten antolamendu xehatua jasotzen du.

Bigarrena. Agiriak bete egiten ditu Guardia-Arabako Errioxako lurralde plan partzialaren preskripzioak, hain justu 34. artikuluko 2.2.b. atalean adierazitakoak.

Plan bereziak zehatz-mehatz justifikatzen du oinarrizko zerbitzuen eskuragarritasuna, energia berriztagarrien erabilera, paisaiarekiko egokitasuna eta baimendutako gehieneko eraikigarritasuna.

Halaber, aparkaleku hornidura aurreikusita dago eta arkitekturako eta hirigintzako tratamendua zehatz azalduta; paisaiarekin bat datozen eta ingurunearekin integratzen diren irtenbideak proposatzen dira.

Hirugarrena. Beste alde batetik, espedientearen ageri dira lotutako gutxieneko azalera (mahasti landaketak) justifikatzen duten finken zerranda eta lurzati hartzailea, 4,5 ha-koa. Hala ere, hirigintza lotura ez da kreditatu jabetza erregistroaren ziurtagiri bidez.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onartzea Samaniegoko lurzoru urbanizaezinean, 5 poligonoko 548 lurzatian, upeltegi bat jartzeko plan bereziaren espedientea. Hona hemen horretarako baldintza:

– Jabetza erregistroaren ziurtagiri bidez kreditatzea upeltegiak badaukala hirigintza lotura mahasti landaketako 12 ha-ko azalerarekin, plan berezi honen memorian adierazten den 10 urte baino gehiagoko aldirako, Guardiako Lurralde plan partzialaren 1. aldaketaren 34.2.2.g) artikuluan xedaturik dagoen bezalaxe.

Bigarrena. Baldintza hori ez da funtsezkoa. Beraz, hura zuzendutakoan espedientea Foru Aldundiari igorriko zaio, jendaurrean jartzeko izapide berri baten beharrik gabe, betearazi beharrekota dela adieraz dezan, eginbideak egin ditzan eta argitara dezan.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko irailaren 17a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko Foru Diputata
MARTA RUIZ CERRILLO